2021eko abenduek 2an, batzar informatibo baterako deialdia egin zen, herrira iritsi zitzaigun informazioa herritarrekin konpartitzeko. Bilkura honetara, 64 lagun hurbildu ziren. Bertan Canteras Achak promotore bezala eskatutako zundaketa batzuen berri eman zen. Zundaketa hauek Aintzialde eta Bergara erdiz erdi hartzen dituzte

Zundaketan ofitan kalitatea/kantitatea aztertzea da helburu, eta ondorioz, Almandozko harrobiari jarraipena ematea.

Bertaratutakoen eta orohar herritarren kezka oso handia da eta Batzar bat deitzea adosten da abenduaren 12an, herria posizionatu al izateko. Batzarrean bozketa egitea adosten da, galdera hau luzatuz: ZUNDAKETAK ETA HARROBIA EGITEAREN ALDE ZAUDE? BAI/EZ.

2021eko abenduek 12an, Arizkungo Herri Batzarra deitzen da, ostatuko batzar gelan, aurreko batzar informatiboan medikuaren etxea txikia geratu zelakoz.

Batzarrera 155 herritar bertan erroldatuak eta 18 urtez gorakoak agertzen dira. eta 4 herritar 18 urtez beherakoak.

Batzarra bozketa egiteko deitua zenez, 155 herritarrek bozka ematen dute. Luzatutako galdera: ZUNDAKETAK ETA HARROBIA EGITEAREN ALDE ZAUDE? BAI/EZ

BAI 0

EZ 155

Arizkungo Herri Batzarrak aho batez adosten du zundaketa eta harrobian kontra posizionatzea.

**ARIZKUNGO BATZARRAK ESKATZEN DU:**

Batzar nagusiak bat egitea Arizkundarren erabakiarekin eta ondorioz zundaketa eta harrobiaren kontra agertzea.

ARIZKUNGO HERRIA
I.K.F.: P-3105003B

Arizkungo Alkatea: Imanol Etxeberria Antxorena

ARIZKUNGO HERRIA